

## **1996ko UZTAILAren 9ko BILKURA NAGUSIA**

Lizartzan, mila bederatzehun eta laurogeitamaseiko uztailaren bederatzian, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz; jabetza hartu behar duten, Juan Manuel Ibarguren Etxeberria eta Marian Olano Zabala; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **1.- ZINEGOTZIEN JABETZA HARTZEA**

Alkateak, Zinegotzien berrien nortasuna kreditatzen duten kredentzialen berri ematen du.

Horren arabera, Alkateak, Juan Mañu Ibarguren Etxeberria eta Marian Olano Zabala Jaun/Andre, zinegotzi berriei karguaren jabetza ematea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu izan da, Korporazioa formalki eratuta gelditzen delarik.

### **2.- BATZORDEEN OSAKETA BERRIA**

Alkateak, zinegotzi berrien karguen jabetza hartzearen arabera, Batzordeen osaketa berriak proposatzen ditu:

**GIZARTE ONGIZATEA BATZORDEA.**- Lehenago Ima Zubeldia zena, orain, Juan Mañu Ibarguren Etxeberriak hartuko du.

**NEKAZARITZA BATZORDEA.**- Lehenago Jose Antonio Mintegi zena, orain, Ima Zubeldia Luloagak hartuko du.

KIROLAK BATZORDEA.- Lehenago Inaxio Olaetxea zena, orain, Juan Mañu Iburguren Etxeberriak hartuko du.

HIRIGINTZA BATZORDEA.- Julian Zubeldia Aierbe eta Inaxio Olaetxea Karrera baztertzen dira.

Beste Batzordeak, berdin gelditzen dira.

Baita ere, Mankomunitate, Kontsortzio eta bestelako Entitateetako ordezkarien proposamena egiten du:

MUSKIL.- Marian Olano Zabala

UR KONTSORTZIOA.- Juan Mañu Iburguren Etxeberria

TOLOSALDEA GARATZEN.- Jose Antonio Mintegi Arrate

### 3.- DIRUZAINAREN IZENDAPENA

Alkateak, Diruzain berriaren proposamena egiten du:

Lehenago Julian Zubeldia Aierbe zena, orain, Juan Mañu Iburguren Etxeberriak izango da.

### 4.- AURREKO AKTEN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu dira.

### 5.- EUSKAL UDAL INTSUMITUEN MANKOMUNITATEAREN ESTATUTOEN ONARPENA

Alkateak hitza harturik, Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatearen Estatutoak aurkeztu ditu, eta literalki, honela diote:

## **EUSKAL UDAL INTSUMITUEN MANKOMUNITATEAREN ESTATUTOAK**

### **I. KAPITULUA**

#### **Eraketa, Izena, Nortasuna eta Gaitasuna**

##### **1.- Art.- Eraketa**

Euskal Herriko hainbat udalek, Udal Intsumituak izatea erabaki zutela kontuan hartuz, eta Euskal Herri ez militarizatu batera iristeko Udaletxeek, gizartearen beste agente ezberdinekin batera, egin behar duten ahalegin bereziaz oharturik, Udal Intsumituen Mankomunitatea sortzeko erabakia hartu dute.

##### **2.- Art.- Izena**

a) Aurreko artikuluan aipatutako erakunde lokalari "EUSKAL UDAL INTSUMITUEN MANKOMUNITATEA" (EUDIMA) izena emango zaio, eta hasieran Oiartzungo Udaletxean kokatuko da bere Egoitza eta Informazio Bulego Zentrala.

b) EUDIMAK Estatuto hauek agertzen dutenaren arabera ihardungo du.

c) EUDIMAK ez du irabaziak lortzeko xederik izango.

##### **3. Art.- Nortasun eta Gaitasuna**

Estatuto hauek martxan jartzen direnetik izango du EUDIMAK legezko nortasun eta gaitasun osoa bere helburuak betetzeko, mankomunitateek gaur dituzten eta etorkizunean izango dituzten arauak onartuz.

## **II. KAPITULUA**

### **Helburuak eta Funtzioak**

#### **4. Art.- Helburuak**

EUDIMAREN helburua Euskal Herri ez militarizatu batera iristea da, horretarako behar diren baliabide tekniko, ekonomiko eta pertsonalak jarriz.

EUDIMAREN partaide diren Udalek, Intsumisioa, beraien herrietako edozein herritarrek duen eskubide bezala, promozionatu, bultzatu eta defendatuko dute barne zein kanpo mailako ekimenen bidez.

#### **5. Art.- Funtzioak**

EUDIMAK bere helburuak lortzeko honako funtzio hauek asumituko ditu:

- a) Intsumitu errepresaliatuen jarraipena egingo du lehe-nengo notifikazioa emango den unetik.
- b) Behar den aholku eta asistentzia juridikoa eskainiko die, bai gazte intsumituei, bai Udal Intsumituei eta beraietako hautetsi publikoei.
- d) Ejerzitoaren kolaborazio-eza aktiboa edukitzea (kintak, maniobrak....)
- e) Intsumisioa eta ez militarizazioaren alde sensibili-zatzeko eta bultzatzeko ekintzak eta inizatibak sortu.
- f) Epaiketa egoten denean, Udaletxe inplikatuak bertan egon beharko du.
- g) Intsumisioaren aurka sortutako Ordezko Zerbitzu Soziala herrian finkatzen ez du lagunduko, elkarte kolaboratzai-leekiko harremanak aztertu eta berrikusiko dituelarik.

Aipatutako funtzioak bete ahal izateko EUDIMAK aurrekontu bat eratuko du.

### **III. KAPITULUA**

#### **Kolaborazioa eta Koordinazioa**

##### **6. Art.- Kolaborazioa**

EUDIMAREN Udalek, Euskal Herri ez militarizatu batera iristeko jorratu behar duten bidean, Euskal Herrietako herri talde eta erakunde publiko ezberdinekin batera lan egingo dute, behar diren neurriak hartuz.

##### **7. Art.- Koordinazioa**

Bertako partaide diren Udalen ahaleginak emaitza gorena izan dezaten, EUDIMAK hauen ekintzak koordinatu, eta beharrezko den laguntza teknikoa eskainiko die.

### **IV. KAPITULUA**

#### **Indar Epea**

##### **8. Art.- Indar Epea**

EUDIMA indarrean egongo da, bertako partaideek Batzar Nagusian kontrakorik gehiago osoz erabakitzen ez duten bitartean. Mugarik gabeko epea izango du, eta Udalek estatutu hauek onartzen dituzten egun beretik izango dira indarrean.

### **V. KAPITULUA**

#### **Organuak eta barne-funtzionamendua**

## 1. Sekzioa: Organuei buruz

### 9. Art.- Organuak

EUDIMAKo Organuak honako hauek dira:

- a) Batzar Nagusia
- b) Lehendakaria
- d) Zuzendaritza Batzordea
- e) Aholku Batzordea

Hala izanik ere, Zuzendaritza Batzordeak sortu ahal izango ditu Lan Batzorde bereziren bat, edo egoki deritzaion antolakuntza osagarriren bat, Batzar Nagusiaren onespenerekin.

## 2. Sekzioa: Batzar Nagusiari buruz

### 10. Art.- Partaidetza

Batzar Nagusia, EUDIMAKo partaide diren Udal guztietako ordezkariak osatzen dute, eta berari dagokio Estatutuen aldaketa egitea eta testu berriak onartzea.

### 11. Art.- Osaketa

Batzar Nagusian, Mankomunitatea osatzen duten Udalen ordezkariak, ondorengo mailaketari dagozkionak izango dira:

- \* 1000 biztanle arteko Udalak Kideak, 1
- \* 1001 biztanletik 2500 biztanle arteko Udalak Kideak, 2

* 2501 biztanletik 5000 biztanle arteko Udalak	Kideak, 3
* 5000 biztanletik 10000 biztanle arteko Udalak	Kideak, 4
* 10000 biztanletik gorako Udalak	Kideak, 5

## 12. Art.- Ordezkarien Aukeraketa

1.- Aurreko artikuluan aipatutako kideak Udalerri bakoitzeko osoko bilkuran izendatuko dira, zinegotzien artetik ondorengo baldintzen arabera:

- Kide 1 edo 2 izendatu behar duten Udalerrietan, legezko zinegotzi-kopuruaren gehiengo osoz aukeratuko da. Gehiengo hau lortuko ez balitz, handik 24 ordotara gutxienez, beste bozketa bati ekingo zaio. Kasu honetan gehiengo soila, nahikoa izango litzatekeelarik.

2.- a) Aukeratuak izan diren kideen agintaldia eta hauta-tutako Udal Batzarrena berdina izango da, zinegotzien nahi ta nahiezko edo borondatezko kargu-uzteak berarekin ekarriko du, EUDIMAKo ordezkariak uztea ere. Kasu horretan, Udalak ordezkari berriak izendatuko ditu.

b) Udal Batzarretako partaideen agintaldia bukatu ondoren, Udal Batzar berria osatu eta Mankomunitate-rako izendatu arte, Gazteriaz arduratzen den zinegotziak beteko du lana, ordezkaria izendatzen den tarterarte.

## 13. Art.- Funtzionamendua

Batzar Nagusiaren funtzionamendu-araua honelakoa izango da:

a) Batzar Nagusiak, EUDIMAKo Lehendakariak zuzenduko ditu, idazkariaren laguntza izango duelarik.

b) Batzar Nagusiak ohizko eta ohiz kanpoko batzarrez jardungo du. Deialdia, Zuzendaritza Batzordeari dagokio, eta honen izenean, Lehendakariak luzatuko ditu.

- d) Batzar Nagusiak, urtean behin egingo du ohizko batzarra, urteko gestioaz eta aurrekontuaz eztabaidatzeko behintzat. Eta ohiz kanpokoa Zuzendaritza-Batzordeak egoki deritzon guztietan edo kide osoen bostena edo lau Udaletako ordezkariak eskatuta. Azken kasu honetan, Zuzendaritza-Batzordeak errekeritua izan den momentutik 30 egun ditu Batzar Nagusiaren deia zabaltzeko, beti ere, hurrengo parrafoak xedatzen duena errespetatuz.
- e) Gutxienez, hilabete aurretik egingo dira Batzarretako deiak, gai garrantzitsuen inguruan, Udalek Pleno edo Eledunen batzarren bitartez erabakia hartzeko denbora izan dezaten.
- f) Batzarra indar osoz eratzeko, ohizkoa edo ohiz kanpokoa delarik, kide osoen gehiengoa bertan izatea da beharrezko, lehenengo deialdia, ordu bete beranduago bigarren deialdian bertaratzen direnen kopuruak herena izanda, egingo da.
- g) Aurreko artikuluetan horrela xedatuta egon arren, Batzar Nagusia deituztat eta behar bezala eratuztat emango da, kide guztiak bilduak aurkitzen direnean eta Batzar Nagusia eratuztat aho batez ematen dutenean.
- h) Premiazko gairen bat sortzen denean, Batzar Nagusia eratuztat hartzeko eta gaia eztabaidatu ahal izateko Batzar Nagusiko kideen erdiak gehi batek Batzarraren hasieran berretsi beharko du premiazkotasun hori.

#### 14. Art.- Aztergai-Zerrenda

Batzar Nagusiaren aztergai eta erabakitze moduari dagokionez:

- a) Bai ohizko Batzarrerako zein ohiz kanporako deiaz batera aztergai-zerrenda bidaliko da erabiliko diren gaiak Zuzendaritza Batzordeak onartuko ditu. Eta nahi ta nahiez barneratu beharrekoa izango da Mankomunitatearen helburuetarikoak izan eta kide osoen bostenak edo lau herrietako ordezkariak gutxienez eskatutakoa.



- b) Batzarrak aztergai-zerrendarako gai guztiak aztertu eta erabakiko ditu, horretarako aurrera begira bigarren bilera berria egin behar badu ere.

#### 15. Art.- Erabakiak

Batzar Nagusiak erabakiak gehiago osoz nahiz beste modu batez hartuko ditu, honakoaren arabera:

- a) Eztabaidak Lehendakariak zuzenduko ditu eta orokorki, emandako botuen gehiago soilaz hartuko dira erabakiak.
- b) Emandako botuen gehiago soilak baino zabalagoa den bi hereneko edo lau bostenekoa behar izango da Estatutuak berritzeko edo Elkarte desegitea erabakitzeko, hurrenez hurren.
- d) Batzar Nagusietako sesioetako aktak jasoko dira, dagokien liburuan bilduz, beti ere Lehendakari eta Idazkariaren sinadurarekin.
- e) Batzar Nagusietako sesioetako aktak, Mankomunitatea osatzen duten Udal guztiei bidaliko zaizkie.

#### 16. Art.- Autonomia Lokala

Batzar Nagusiak, Mankomunitatearen Organu soberano bezala, izaera erabakitzailera izango du edozein gairi buruz eztabaidatzeko, beti ere hartutako akordioak, Autonomia Lokalaren aurka joaten ez diren bitartean.

Hartu beharreko erabakia Autonomia Lokalaren printzipioen aurka joango litzatekeela joko balitz, Udal ordezkariak dagokion Udal Batzarre osoaren oniritzia jaso beharko du. Bestelakoetan, berehala emango dio ordezkariak Udalari hartutako erabakiaren berri.

Batzar Nagusiari konkretuki, Estatutuen aldaketa, testu berriak onartzea, Udal berrien sarreran aldeko erabakia hartzea, Zuzendaritza Batzordearen kideak onartzea eta lan hortatik kentzea, aurrekontuak onartzea, Zuzendaritza-Batzardeak zehaztutako urteko plangintza kontrolatzea, langileak hautatzeko kontratazio-oinarriak onartzea, mailegu eta kreditu eragiketak onartzea, EUDIMAKo ondarea onartzea, eskuratzea eta besterenganatzea, eta EUDIMAKo helburuak eskuratzeko egitasmoak onartzea Zuzendaritza Batzordeak proposatuz, dagokio.

### 3. Sekzioa: Zuzendaritza Batzordea

#### 17. Art.- Osaketa

Zuzendaritza Batzordea osatuko dute:

- a) Lehendakariak.
- b) Batzar Nagusiak Udal ordezkarien artetik aukeratutako sei kidek, lurralde gutzietatik ordezkaturik egon behar dutelarik.

#### 18. Art.- Funtzionamendua

Zuzendaritza Batzordea hilean behin bilduko da. Hala ere, beharrezkotzat jotzen diren Batzarrak egin ahal izango ditu Lehendakariaren eskariaz edo Zuzendaritza Batzordea osatzen duten partaideen herenaz.

Deialdiaren eguna eta zerrendaren aukera Lehendakariaren esku daude. Hala ere, deialdia Zuzendaritza Batzordeko partaide bakoitzak nahiko denborarekin jasoko du gai zerrendako puntuak aztertzeke denbora izan dezan. Horregatik, deialdia gutxienezko hiru egunetako epearekin banatuko da, eztabaidatuko diren materialekin batera. Deialdian, batzar-tokia eta bi deialdi agertuko dira.

## 19. Art.- Erabakiak

Zuzendaritza Batzordearen erabakiak normalean gehiengo arruntaz hartuko dira; hala ere, behean aipatzen diren kasuetan gutxienez gehiengo osoa eta Aholku Batzordearen aldeko txostena ezinbestekoak izango dira:

1. Ordenantzen, Estatutuen edo Araudien onarpen-proposa-mena.
2. EUDIMAKo partaide berrien onarpena- edo kanporatze- proposamena.
3. Estatutuen aldaketa-proposamena.
4. Aurrekontuen onarpen-proposamena.

## 20. Art.- Gaitasunak

Zuzendaritza Batzordeari dagokio, EUDIMAKo funtziona-mendua ziurtatzea, horretarako EUDIMA zuzentzeko eta ordezkatzeko beharrezkoak diren gaitasun guztiak izango ditu, beti ere, legeak eta Estatutu hauek Batzar Nagusiari edo Udalerri bakoitzeko Udalbatzei dagokiela erizten denean salbu.

Zuzendaritza Batzordearen gaitasunen artean hauek ditugu:

1. Aurrekontua egikaritzea.
2. Mankomunitateko langileak kontratatzea.
3. Estatutuen aldaketa edo berrikuntza proposatzea.
4. EUDIMAKo helburuak eskuratzeko egitasmoak proposatzea.
5. Batzar Nagusiak erabaki dezan, EUDIMAKo kideak onartzeko edo kanporatzeko proposamenak luzatea.

6. EUDIMAKo langileen sarrera azterketa araupetuko dituzten oinarriak prestatzea.
7. Barne Araudia onartzea eta behar izanez gero, Laguntza Batzordea eta Antolakuntza Osagarriak sortzea. Gainera, aipatutako Batzordeetako kideak izendatuko ditu berau osatzen bada.

#### 4. Sekzioa: Lehendakaria

##### 21. Art.- Hautaketa

Lehendakariak, Batzar Nagusiak hautatuko du bere kideen artetik eta botuen gehiengo osoz. Gehiengo osoa lortuko ez balitz, atsedenaldi bat egingo litzateke eta eztabaidaren ondoren, gehiengo soilaz. Lehendakaria Udaldi baterako aukeratuko litzateke.

Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenen artetik, Lehendakari ordea izendatuko du, Lehendakaria ez dagoenean edo eta berriak kargua hartu bitartean Lehendakaria ordezkatzeko, azken honek dituen funtzio guztietan ordezkatzeko duelarik.

##### 22. Art.- Funtzioak

Lehendakariari dagokio:

1. EUDIMAKo aginte eta administrazioa zuzentzea.
2. Batzar Nagusi eta Zuzendaritza Batzordeko deialdiak izenpetzea, bilerak zuzentzea eta amaitutzat ematea.
3. EUDIMAKo lan zerbitzu eta ekintzak zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea.
4. Ordain aginduak eta kontuak izenpetzea.

5. Edonolako lege agintzan edo lege-arazoetan EUDIMAKo ordezkari zuzentzea.
6. Mankomunitatearen iharduera ekonomikoa zuzendu eta urteko aurrekontua, kitapena eta balantze ekonomikoa azaltzea.

Lan guzti hauek egiteko, Lehendakariak idazkariaren laguntza jasoko du.

#### 5. Sekzioa: Idazkaritza

##### 23. Art.- Idazkaria

Idazkaria, EUDIMAK egoitza duen Udaletxean idazkari-lana betetzen duena izango da.

##### 24. Art.- Funtzioak

Idazkariari dagokio:

1. Lehendakariari, Batzarretako partaide eta Zuzendaritza Batzordeko partaideei aholku ematea, estatutu eta ordenantzen arabera zein den betebeharra azpimarratuz.
2. Dokumentazio eta eskaera komunikazio guztiak zuzentzea eta artxibatzea, Lehendakaria informatu ondoren.
3. Batzar Nagusi edo Zuzendaritza Batzordeko bileren aktak egitea eta EUDIMAK hartutako erabakien ziurtagiriak prestatzea eta partaideen artean banatzea.
4. Diru-kontuak eguneratuak edukitzea eta balantzeak Lehendakariari aurkeztea, lan horretarako Udaletxe horretan kontuhartzailerik ez balego.

## 6. Sekzioa: Aholku Batzordea

### 25. Art.- Aholku Batzordea

1. Aholku Batzordea, Udal hauetan intsumisioa onartuta duten alderdi politiko bakoitzeko eta Talde Antimilitaristeko ordezkariak osatuko dute. Talde bakoitzak ordezkari bana izango du.
2. Hautatutako ordezkaria talde bakoitzak libreki aukeratu du bi urterako. Hautatu hauek beren ordezkariak izango dituzte, hautatuak bere inizatibak edo bere talde bultzatua postua uztea erabakitzen badu, hilabeteko epean ordezkaria izan dadin.
3. Beren garrantziagatik EUDIMAREN gehiengo osoa edo handiagoa eskatzen duten erabakiek onartu aurretik, Aholku Batzordearen iritzia jaso beharko dute. Kasu horietan, Aholku Batzordeak EUDIMAREN Zuzendaritza Batzordearen bileran parte hartuko du, bere ordezkari-tzaren bidez. Bide beretik, Zuzendaritza Batzordeak edozein unetan aholkua eska diezaiolke Aholku Batzordeari.
4. Aholku Batzordeak urtero ohizko hiru bilera egingo ditu gutxienez, Zuzendaritza Batzordearen eskakizunez egindakoak barne delarik.

### 26. Art.- Funtzioak

Aholku Batzordeari dagokio:

1. Intsumituak izatea erabaki duten Udalek, horren alde lan egiteko irizpideak ematea.
2. Bertan parte hartzen duten talde eta erakundeen proposa-emenekin EUDIMAN parte hartzen duten Udalerri guztiei begira urteko plan bat prestatu eta aurkeztea Zuzendaritza Batzordeari.

3. EUDIMAn parte hartzen duten Udaletan Intsumisio alorrean burutzen diren ekintza ez instituzionalen koordinazioa ziurtatzea.

## **VI. KAPITULUA**

### **Diru-Sarrerak**

#### 27. Art.- Diru Sarrerak

EUDIMako diru sarrerak honako hauek izango dira:

1. Entitate publikoetako diru-laguntzak.
2. Bere ihardunetatik sortutako diru-etekinak.
3. Donazioak.
4. Biztanle kopurua kontutan hartuz, Udal bakoitzak ezarriko duen diru-kopurua.

## **VII. KAPITULUA**

### **Elkarteratzea eta Kanporatzea**

#### 29. Art.- Elkarteratzea

EUDIMatik kanpo dagoen Udalerri bat onartzeko, beharrezkoa izango da.

1. Sartu nahi duen Udal Batza osoaren baizko erabakia, Mankomunitatearen Estatutuak onartuz, bertako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz.
2. Udal berriaren sarreraren aldeko erabakia hartu behar du EUDIMAk bere Batzar Nagusiko kideen botuen kopuruaren gehiengo osoz.

Udal sartu berriaren hasierako diru-sarrera, teknikoki ezarriko du EUDIMAKo ondasun eta zerbitzu-kostuen arabera Zuzendaritza Batzordeak.

### 30. Art.- Kanporatzea

EUDIMAtik kanpora bere borondatez ateratzeko baldintza hauek bete beharko dituzte Udalek:

1. Dagokion Udal Batzak gehiengo osoz ateratzea erabaki ondoren, gutxienez hiru hilabeteko aurrerapenaz egingo du eskaera.
2. Bere diru-ordainketa eginik izan beharko du.
3. EUDIMAtik ateratzeak sortzen dituen gastuak ordaindu beharko ditu, eta baita EUDIMAK lituzkeen zorretatik legokiokeen zatia.

### **ALDI BATERAKO ERABAKIAK**

Lehena.- Estatutu hauek indarrean jarri eta bi hilabeteko epe barruan, EUDIMAKo aginte sailak martxan jarriko dira.

Bigarrena.- Estatutuak indarrean jartzen diren hurrengo egunetik, hilabeteko epe barruan elkartutako Udalerriek bere ordezkari diren kideak izendatuko dituzte eta hauen izen abizen eta helbideak.

Alkateak aurkeztu dituen, EUSKAL UDAL INTSUMITUEN MANKOMUNITATEA (EUDIMA)ren Estatutuak, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartzea erabaki da.

EUDIMAn, Udal honen izenean aritzeko, JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE izendatzea, aho batez erabaki da.



Idazkariak hitza harturik dio: Proposamen hori onartuko balitz, Legeek agintzen dutenaren aurka joango dela Udala. Horrenbestez, ilegala izango litzakela.

Idazkariak eginiko ilegaltasun jakinerazpenaren jakinean, EUSKAL UDAL INTSUMITUEN MANKOMUNITATEAREN estatutuak onartzea, aho batez erabaki da.

#### 6.- ZABORTEGIAREN MANKOMUNITATEA

Zaborteia amankomunizatu behar den zerbitzua dela adieraztea, Lizartzako Udala Tolosaldeko Hiri Hondakin Solidoen amankomunitatean parte hartzeko prest dagoela azalduz.

Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Diputazioko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuari ematea.

Zabortejiaren Mankomunitatean parte hartzea, aho batez onartu da.

#### 7.- 3. AREAKO DESJABETZAPEN ESPEDIENTEKO TITULARREN ZERRENDA ETA ERAGINDAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN BEHIN-BETIKO ONARPENA

#### **LIZARTZAKO LAGUNTZAZKO ARAUETAKO 3. AREAREN DESJABETZA ESPEDIENTEAREKIN AFEKTATUTAKO ERASANDAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN OKUPATU BEHARRAREN ERABAKIAREN BEHIN BETIKO ONARPENAREN PROPOSAMENA.**

Ikusirik, Gipuzkoako Foru Aldundiako Diputatu Kontseiluaren, mila bederatziehun eta laurogeitazortziko ekainaren hamalauko erabakiaren bidez, Lizartza Udalerriko "B" motatako Planeamenduko Arau Subsidiarioak behin betiko onartuak izan zirela eta, mila bederatziehun eta laurogeitazortziko urriaren bateko udal batzarraren erabakiz, Laguntzazko Arauetako 3. Areari

dagokion, desjabetza espedientea hasi zela, zeinean, jabeen zerrenda eta erasandako ondasun eta eskubideen deskripzio banakatua onartu zen.

Ikusirik, mila bederatzehun eta laurogeitazortziko urriaren beteko udal batzarraren erabakiz hasitako, okupatu beharraren espedientea, Auzitegi Gorenaren Seigarren Sekzioko Hirugarren Salaren Autoz errebokatutako suspentsioagatik, geldirik egon dela.

Ikusirik, geldituta egon den epean, Udalak, akordio batera iristeko asmoz, espropiazio espedientean afektatutako jabeekin harremanak eduki dituela, erabat alferrikakoak, izan direlarik.

Ikusirik, Derrigorrezko Desjabetzapen Legeko 17.gn. artikulua eta Erregelamenduaren konkordatuak diotenaren arabera, mila bederatzehun eta laurogeitazortziko urriaren bateko udal batzarrean, desjabetza espedientean afektatutako jabeen zerrenda eta erasandako ondasun eta eskubideen deskripzio banakatuarekin, Okupatu Beharraren erabakia onartu zela.

Ikusirik, erabaki hori 215 eta 343 zenbakiko 1.988ko azaroaren 16 eta abenduaren 28ko EHAAetan eta 1.988ko abenduaren 9ko 232 zenbakiko GAO argitaratua izan zela, jabeen zerrenda eta erasandako ondasun eta eskubideen deskripzio banakatuari alegazioak egiteko 15 eguneko epea emanaz, 1.976ko apirilaren 9ko Lurzoruaren Legeko Testu Birbilduaren V. artikuluan eta hurrengoetan ikusitakoarekin bat.

Ikusirik, mila bederatzehun eta laurogeitabederatziko urtarrilaren 11ko eta hurrengo eguneko argitzearena, Iruñeako Lurralde Entzutegiko Salaren Suspentsioko Autoak, gaur egundaino desjabetza espedientearen iharduketak eseki zituela.

Ikusirik, mila bederatzehun eta laurogeitamabosteko ekainaren hogeitahiruan, Nafarroako Epaitegi Goreneko Kontentzioso-Administratiboko

Sala Indartzeko Sekzioak luzatutako Autoaz, aipatutako esekitzea errebokatzen dela.

Ikusirik, mila bederatziehun eta laurogeitamaseiko apirilaren bateko Udal Ebazpenez, oraingo titularren zerrenda eta eragindako ondasun eta eskubideen deskribapenaren osagarri gisa, benetan 3. arean kokatuta dagoen finkaren deskribapenari hasierako onarpena eman zitzaiola.

Kontutan hartuaz, alegaziotarako luzatutako epean, ez dela inolako erreklamaziorik egon.

Kontutan hartuaz, Derrigorrezko Desjabetzapean Erregela-menduko 20.gn. artikuluan dioenaren arabera, Okupatu Beharraren Erabakia, Udaleko Plenoak behin-betirako onartu behar duela eta testu osoa publikatua eta afektatuei jakinerazia izan beharko dela.

Guzti horregaitik, Udal Plenoari proposatzen zaio:

- 1.- Aurreago aipatzen diren, espedientean aurrerantzean emango diren tramiteaz arduratuko diren afektatutako jabeen zerrenda eta erasandako ondasun eta eskubideen zehaztutako zerrendaren arabera, Okupatu Beharraren Erabakia behin-betirako onartzea:

Jabeak: M. Asuncion Garaikoetxea Ormaetxea Andrea, hiru hamaikarenetan usufuktu-eskubide baten jabea.

Castor Olaetxea Garaikoetxea Jauna, zatiezinezko hiru hamaikarenen jabe soila.

Dionisio Olaetxea Garaikoetxea Jauna, zaitiezinezko hamaikaren baten jabetza osoa duen titularra.

German Olaetxea Garaikoetxea Jauna, zaitiezinezko hamaikaren baten jabetza osoa duen titularra.

Jose M. Olaetxea Garaikoetxea Jauna, zatiezinezko hamaikaren baten jabetza osoa duen titularra.

Juan M. Olaetxea Garaikoetxea Jauna, zatiezinezko hamaikaren baten jabetza osoa duen titularra.

M. Sagrario Olaetxea Garaikoetxea Andrea, zatiezinezko hamaikaren baten jabetza osoa duen titularra.

Ildefonso Izagirre San Sebastian Jauna eta Juana Olaetxea Garaikoetxea Andrea, zatiezinezko hamaikaren baten jabetza osoa duten titularrak.

M. Izaskun Amonarriz Eizmendi Andrea eta Vicente Olaetxea Garaikoetxea Jauna, zatiezinezko hamaikaren baten jabetza osoa duten titularrak.

Jose Angel Partearroyo Angulo Jauna eta Victoriana Olaetxea Garaikoetxea Andrea, zatiezinezko hamaikaren baten jabetza osoa duen titularrak.

Luze-Zabalera: 2.911,20 m<sup>2</sup> eta Aztine Baserria deritzan eraikuntza. Eraikuntza honek, behe-oina, altua eta teilatu azpia ditu. Behe-oinaren parte batean, 27,22 m<sup>2</sup> duen aterpe bat dago. Oinean eraikitako luze zabalera guztiak, aterpea barne delarik, 238,75 m<sup>2</sup> ditu. Etxearen estruktura, mistoa da, harri hormazko karga duten horma eta egurrezko pilare eta habeekin. Teilatuaren estruktura ere, egurrezkoa da, teil kurboaz errematatua. Iraunketa egoera txarra da eta bertan, ez da inor bizi. Etxearen ekialdeko fatxada aurrean, bi sagarrondo daude, 22 zentrimetroko diametroa dutelarik.

Gaur egungo erabilera: Laborantza

Orube Sailkapena: Hirilurra

Mugakideak: I - Udala  
Gaspar Barriola  
Julian Genaro Olaetxea

H - Herri Bidea

M - Herri Bidea

E - Araxes Ibaia

Tolosako Jabego Erroldaritzan Legezko Inskripzioa:

Liburua: 20

Liburukia: 988

Orubea: 1049

Folia: 72. Orria

2.- Ebazpen honen hurrengo egunetik, Desjabetzapen Espedientean, Balio Justuaren espedientea hasta.

Lehen puntuko, eta Administrazio-bidez behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa jar dezakezu Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Zuzentza Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzitarako Sailaren aurrean, bi hilabetetako epearen barruan, azken jakinerazpen edo argitalpen egunetik kontatzen hasita.

Azaroaren 26ko 30/1992 HAALeko 110.3 artikuluan aurrikusitakoaren arabera, Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa jartzekotan, aldez aurretik eta Derrigorrez, erabaki hau eman duen Organoari jakin arazi behar zaio.

Bigarren puntua tramitezkoa da, eta beraren aurka ez dago inpugnaziorik administratibo bidean.

Lizartzako Laguntzazko Arauetako 3. Arearen Desjabetza Espedientearekin afektatutako erasandako ondasun eta eskubideen okupatu beharraren erabakiaren behin betiko onarpena, Lizartzako Herriaren Aldeko 3 aurkako eta, Herri Batasunaren aldeko 4 botoekin, gehiengo batez onartua izan da..

#### 8.- DESJABETZA ESPEDIENTEAREKIN AFEKTATUTAKO LURREI BURUZ PROPOSAMENA

Osoko Bilkurari proposatzen zaio Udalak 3. Arean dauden eta derrigorrezko desjabetzapena eragiten dien lursailak eskura ditzala, bertan babes publikoko erregimena izango duten etxebizitzak eraikitzekotan.

Arau Subsidiarioetan aurrikusitako 3. Areari buruzko hirigintza ordenazioak, urbanizazio-obra bereziak aurrikusten ditu (Area zeharkatzean Araxes ibaia ubideratzea eta errepide nagusitik Arearainoko sarbide-zubi berria eraikitzea); obra hauek, hainbat enpresak orientazio moduan emaniko datuen arabera, Areari gehitu beharreko nahiko zenbateko handikoak dira.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, Eusko Jaurlaritzak emandako Babes Ofizialeko Etxebizitzen kalifikazioak hainbat eskakizun betetzen direla auresuposatzen du, besteak beste, lurzoruaren balioak eta urbanizazio-kostuak ez dezatela %15-20ean (udalerrriaren kokagunearen arabera) gainditu babes publikora atxikitako eraikuntzen salmenta-prezioa, zeina, era berean, une bakoitzean indarrean dagoen modulu ponderatuen araberakoa den.

Aurreko eskakizun hori, ordea, ezinezkoa da 3. Areari aplikatzea, Area horretan egikaritu beharreko urbanizazioa aztertu ondoren agerian geratu den moduan.

Bestalde, lege-eskakizunak bete ondoren, Administrazio desberdinek (Toki Entitateak eta Eusko Jauralritza) etxebizitza-mota hauek sustatzeko honako bideak jarraitu ohi dituzte: Administrazioak lursaila eskuratzen du eta hirugarren bati azalera-eskubidea lagatzen dio bertan eraiki dezan. Hirugarren honek, eraikuntza bukatu ondoren, etxebizitzak transmititu egiten ditu, jakina, azalera-eskubideko erregimenpean.

Hala, lursailaren jabetza beti eta uneoro egongo da hori eskuratu duen Administrazioaren esku.

Bestalde, azalera-eskubideak 75 urteko gehieneko epea du, eta epe hori betetzean eraikitakoa Administrazio titularraren eskura bueltatuko da. Hau da, hain zuzen, eskubidearen transmisioa prezio sinboliko batean egin ohi izateko arrazoia, modu horretan babes ofizialeko araudia betetzea ahalbidetuz.

Udalak desjabetutako lursailei 25-30 milioi pezetako prezio justua ezarri dielarik, ordainketa horri aurre egiteko diru-sarrerak, batetik, 1.996ko aurrekontuan aurrikusitako partidatik lortuko dira (16 milioi), eta bestetik, kreditu-eragiketa baten bidez, ondoren konpentsatua izango dena etxebizitzaren eraikuntzati eratorritako tasa eta zergen kontzeptupean lortutako sarrerekin (14 milioi pezeta inguru).

Aurrekoari jarraiki, Osoko Bilkurari proposatzen zaio Udalak, 3. Areari atxikitako lursailak eskura ditzala (hau da, desjabetza-peneko prezio justua ordaintzea), hala, gerora, aplikaziozkoa suertatzen den prozeduraren bidez, bizitegi-erabilera xedatutako partzelen gaineko azalera-eskubidea lagatzeko. Hori guztia, 75 urteko gehieneko epean zehar.

Desjabetza Espedientearekin afektatutako lurrei buruzko proposamena, Lizartzako Herriaren Aldeko 3 zinegotzien aurkako eta, Herri Batasunaren 4 zinegotzien aldeko botoekin, gehiengo batez onartua izan da.

#### 9.- ERROLDA BERRIKUNTZA

Idazkariak, 1.996ko Maiatzaren 1era eginiko Errolda Berrikuntzaren berri ematen du:

GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
337	304	641

1.996-05-01era eginiko Errolda Berrikuntza, aho batez onartu da.

#### 10.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

LUIS MARIA ARROSPIDERi, Berasanea baserriaren berri-kuntzarako eta etxe aurreko borda eta garajeari teilatua berritu eta paretak txukuntzeko baimena eman zaio.

INAXIO ALTUNA AZURMENDIri, Toki Alai etxearen atzean dagoen txabolaren txukunketa lanak egiteko baimena.

JUAN BAUTISTA ARTOLARI Kale Nagusia, 5eko fatxada pintatzeko baimena eman zaio.

JOSE ARZADUN EGILUZI, Istileta Behekoa Baserriko fatxada pintatzeko baimena.

ANTONIO CASTEL-i, Ilarratsuko bordaren teilatuari erretila emateko eta herri bidean hormigoia botatzeko baimena.



M<sup>a</sup> CONCEPCION ZINKUNEGI AGIRREri, Kale Nagusia, 33an, behe solairuan obra egiteko baimena.

JOSE MANUEL ETXEBERRIA MAIZ Jaunari, Kale Nagusia, 6ean dagoen etxearen teilatuari erretila eman eta fatxada pintatzeko baimena.

ANTONIA GARMENDIA GARMENDIari, Iturralde Etxean 3. Solairuko etxebizitzako sukaldea berritzeko baimena.

MIGEL ZUBELDIA AIERBERi, Zulartetxe baserriaren teilatuari erretila emateko baimena.

IBERDROLari, Toki Alai Etxean, lurpeko kanalizazioaren bidez, argindarraz hornitzeko baimena.

INAXIO ALTUNA ARRUABARREnari, Joangi Baserriaren teilatuari erretila emateko baimena.

## 11.- LIBURUTEGIKO LANPOSTURAKO OINARRIAK

Marian Olano Zabala Zinegotzia, Areto Nagusitik atera egin da, berak, Lanpostu horretara aurkezteko asmoa duelako.

Kultura Batzordeko Zinegotzien den, Ima Zubeldia Luloagak, hitza harturik, Liburutegiko Arduradun baten Kontrataziorako oinarriak aurkeztu ditu:

### **LIBURUTEGIKO ARDURADUN BATEN KONTRATAZIORAKO OINARRIAK**

#### 1.- Deialdiaren Xedea

Deialdi honen xedea oposizio librearen bidez, liburutegiko arduradun baten kontratazioa da. Lan kontrataziopean, 40% dedikazioarekin, sei hilabete

aldirako izaerarekin, C. sailkapen taldean sarturikoa, 8ko balorazio mailarekin. Hirugarren hizkuntza eskakizuna bete beharko duelarik.

Betebeharreko funtzioak:

- a) Herriko Liburutegiko eginkizunak izango ditu.
- b) Irakurketaren suspertze lanak, batez ere eskolkideen artean.
- c) Kultura eta Gizarte taldeen koordinatzailea.
- d) Kultura Batzordeko Lehendakariak izendaturiko lanpostuari lotuak egon daitezken beste eginkizunak.

## 2.- Plazaren Ezaugarriak

Liburutegiko arduradun plaza, lan kontrataziopean, 40% dedikazioarekin eta sei hilabete aldirako izaerarekin betetzeko deitzen da. Aipatu-denboraldia iragan ondoren, Udal honetako plantilako langile finko izatera pasatzeko erabakia har daitekeelarik.

## 3.- Lan-lharduera

Lanaldia, urteko Udalak ezartzen duen ohizkoaren 40%eko izango da eta arratsaldez egingo da, 17 eta 20 orduen artean, lanpostuaren beharren arabera.

## 4.- Izangaien Baldintzak

Oposizio honetara aurkeztu ahal izateko, izangaiek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Nazionalitate espainiarra izatea edo Europako Elkarteko edozein Estatukoa, edo eta, abenduaren 23ko 17/1993 Legearen xedapen gehigarri bakarrean adierazitako Estatuetakoa (Abenduaren 24ko Estatuko Aldizkari Ofiziala).
- b) Eskariak onartzeko epea amaitzean, 18 urte betेरik izatea eta 55era iritsi gabe.
- c) Administrazio Publikoaren Zentro, Entitate edo Organismoan jarraitutako disziplina espedientearen indarrez zerbitzutik baztertu ez izana.
- d) Funtzionak normaltasunez betetzea eragoz dezan gaisotasun edo akats fisikorik ez edukitzea.
- e) Ezintasun zein elkartezintasun legezko arazorik ez izatea.
- f) Goi-Batxilergo, LH 2 edo pareko tituluren bat izatea.

#### 5.- Instantzien Aurkezpena

Onartua izateko instantziak Korporazioko Lehendakariari zuzenduko zaizkio. Instantzia horietan izangaiek deialdian eskatutako baldintza guztiak eta bakoitza biltzen dituztela adierazi beharko dute, instantziak aurkezteko epearen amaiera datari begira kasu orotan.

Instantziak Udal honen Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, deialdiaren Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxe honetako Iragarki Taulan azkeneko aldiz argitaratzen diren egunaren biharamunetik hasi eta 20 laneguneko epean.

Prozedura Administratiboari buruzko Legearen 66. artikuluan ezarritakoari jarraikiz ere aurkeztu ahal izango dira instantziak.

Instantziaren batek baldintzaren bat betetzen ez badu, doakionari dei egingo zaio 10 eguneko epean akatsa zuzendu edo alegatutako agiriak aurkez ditzan, horrela egin ezean instantzia beste tramiterik gabe artxibatuko dela eta izangaien zerrendatik kanpo geratuko dela jakin eraziz.

## 6.- Izangaien Onarpena

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Udalak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onetsiko du. Zerrenda hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitara emango da 15 eguneko epean zehar erreklamazioak aurkeztu ahal izateko, Prozedura Administratiboari buruzko Legearen 121. artikulua-rekin bat.

Ebazpen horretan argitaratuko da, hautaketa frogetako lehen ariketa hasiko den eguna, tokia eta ordua.

Erreklamaziorik ez badago, behin-behineko zerrenda automatikoki behin-betiko onetsizat hartuko da. Erreklamaziorik egonez gero, ordea, behin-betiko zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratuko da.

## 7.- Epaimahai Kalifikatzailea

Administrazioaren Zerbitzuko Langile Izateko Araudi-Nagusia onartzen duen abenduaren 19ko Erregeren 2223/1984 Dekretuan, ekainaren 7ko Erregeren 896/1991 Dekretuko 4. atalean eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. atalean jasotakoaren arabera osatuko dira deialdiko hautaketetarako epaimahaiak.

Epaimahaiak lehendakari bat, idazkari bat eta zehazten diren epaimahaikideak izango ditu; guztira, ez dira inoiz bost kide baino gutxiago izango. Teknikariez osatuko da gehienbat eta bokalen titulazioa edo espezializazioa dei egindako lanpostuetarako eskatzen denaren parekoa izango da gutxienez.

Edonola ere, epaimahaiak kanpoko aholkulariei dei egin diezaieke hautaketa-aldiko proba guztietan edo zenbaitetan parte har dezaten. Aholkulari horiek, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 31.3 atalari jarraiki, beren teknika-ezagueretara mugatuko dira.

Administrazioaren Jardunbideari buruzko Legearen 20. atalean ohartemandako inguruabarrak gertatzen badira, epai-mahaikoek ez dute parte hartu behar eta hautagaiek, bestaldetik, ezezpena eragin dezakete, aipaturiko Legearen 21. atalarekin bat etorritik, 20. atalean ohartemandako inguruabarrak gertatuz gero.

Epaimahaiko kide guztiek hizpidea eta botoa emateko eskubidea izango dute; idazkariak, berriz, ez du botoa emateko eskubiderik izango. Epaimahaiak, bertan dauden kideen botoen gehiengoz hartuko ditu erabakiak eta, berdinketarik gertatuz gero, Lehendakariak izango du boto ebazlea.

Epaimahaiko idazkari eta epaimahaikideak izendatzea-rekin batera, Idazkari-ordezkoa eta ordezkatuezinezko epaimahai-kide-ordezkoak izendatuko dira. Horiek ere izango dira epai-mahaiko partaide.

Nolanahi ere, euskera-azterketa baloratzeko dagoen epai-mahaikideak horretan baino ez du parte hartzerik izango, berariaz ez bada besterik erabaki.

Epaimahai kalifikatzailea, honako era honetan osatuta egongo da:

Lehendakaria: Udaletxeko Alkate-Lehendakaria edo bere ordezkoko Korporazio kidea.

Mahaikideak: HAEEko ordezkari bat, horretarako izendatua.

HAEEko ordezkari bat, euskarako azterketarako.

Herri Batasuna eta Lizartzako Herriaren Aldeko alderdi politikoetako kide bana..

Gipuzkoako Foru Aldundiako ordezkari bat.

Lizartzako Udaleko pertsonaleko kide edo ordezkari bat, langileak ordezkatzuz.

Idazkaria: Lizartzako Udaleko Idazkaria edo berak izendatu-tako ordezkaria.

Hauetz gain, titularren aldi berean izendatu beharko diren hurrenez-hurreneko ordezkoek ere, osatuko dute epaimahaia.

Epaimahaikideen izendapena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki taulan argitara emango da.

Epaimahaiak ezin izango du eratu ez eta ihardun ere, epaimahaikide titular, zein ordezkoen kopuruaren erdia baino gehiago bertarutzen ez bada.

## 8.- Oposizioaren Hasiera eta Garapena

Lehiakideak batera egin ezin izango diren ariketak egiteko, sorteo bidez izendatuko dira.

Lehiaketako lehenengo azterketa noiz eta non egin Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, hautaketa-aldirako onartu eta baztertu direnen zerrenda ontzat ematen duen erabakiaren batera. Lehiaketarako azterketa bat bukatu eta hurrengoa hasi arte, gutxienez ere 18 orduko eta gehienez ere 20 eguneko epea egongo da. Lehiaketarako gainontzeko azterketak non eta noiz egingo diren aurreko azterketak egin diren tokietan iragarriko du epaimahaiak; bestela, Udaleko iragarki taulan jakinaraziko da, lehiatzaileei ohartarazi ondoren. Hurrengo azterketa egin baino, gutxienez ere, 24 ordu lehenago plazaratu behar dira iragarki horiek.

Lehiakideak ariketarako deialdi bakarrean deituak izango dira.

Hautaketa-aldiaren edozein momentutan epaimahaia ohartzen bada lehiatzailearen batek ez dituela betetzen deialdian eskatutako betekizunak, lehiatzaileari entzun ondoren, deialdiz kanpo geldituko da, eta egun berean jakinaraziko zaio deialdia egin duen agintaritzari.

Lehenbiziko Ariketa: Derrigorrezkoa eta Baztertzailea.

Euskera: Ezinbestekoa da lanpostuak derrigortasuna baitauka. Euskaraz dakiela eta hirugarren hizkuntz-eskakizuna betetzen duela egiaztatu behar du hautagaiak epai-mahaia erabakitzen duen eran.

Salbuetsirik egongo dira, Epaimahaira, ariketa egin baino lehen, 3. HE maila kreditatu dutenak edo EGA edo baliokideren baten jabe direnak.

Bigarren Ariketa: Derrigorrezkoa eta Baztertzailea.

Izangaiek Lizartzako Udalerriko ezagupideari buruzko galderari erantzun beharko diete idatziz.

Froga 0tik 10 puntutara bitartean baloratuko da, gutxienez 5 puntu lortu beharko direlarik gaindituztat emateko.

Hirugarren Ariketa: Derrigorrezkoa eta Baztertzailea.

Eraskinean zerrendatzen diren 3 multzoei, bakoitzatik galdera bati, erantzun beharko diete idatziz.

Froga 0tik 10 puntutara bitartean baloratuko da, gutxienez 5 puntu lortu beharko direlarik gaindituztat emateko.

Laugarren Ariketa: Derrigorrezkoa eta Baztertzailea.

Liburutegi eta Kultur Suspertzailletza arloko ariketa praktikoa.

Froga 0tik 10 puntutara bitartean baloratuko da, gutxienez 5 puntu lortu beharko direlarik gaindituztat emateko.

Bostgarren Ariketa: Derrigorrezkoa.

Ordenagailuarekin, froga praktikoa.

Froga 0tik 2 puntutara bitartean baloratuko da.

Berdinketak gertatuz gero, Epaimahaiak, beste froga bat egitea ahal izango du, berdinketa lortu dutenen artean.

## 9.- Epaimahaiaren Proposamena

Izangaien kalifikazioa amaitu eta, lortutako kalifi-kazioen batuketa egin ondoren, Epaimahaiak onartutakoen zerrenda argitara emango du, lortutako puntuazioaren arabera ordenatua, hauek ezin izango dutelarik deitutako plaza kopurua gainditu. Zerrendarekin batera, epaimahaiak azken bileraren agiria bidaliko dio Udalaren Lehendakariari, izendapen-proposamena egin dezan. Bertan, azterketa guztiak gainditu arren, lanposturik lortu ez dutenen izenak azalduko dira, puntuazioaren arabera sailkatuta.

Hautaketa-aldian lanpostua lortu dutenen izendapena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Proposatutako lehiatzaileek, hautaketa-aldian parte hartu ahal izateko deialdiko oinarrietan eskatzen ziren betekizunen egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte Udaletxeko Idazkaritzan, azterketak gainditu dituztenen zerrenda argitaratu eta 20 egun iragan baino lehen. Hona aurkeztu beharrekoak:



- 1.- Estatuko Nortasun Agiriaren fotokopia egiaztatua.
- 2.- Egiteko publikoak betetzeko gaitasunaz gabetuta eta zigor-espediterearen bidez Herri-Administratziotik baztertuta ez daudela adierazten duen zinpeko aitortpena.
- 3.- Herri Administrazioaren Zerbitzuko Langileen Elkartezintasunak arautzen dituen abenduaren 26ko 53/1984 Legean jasotako elkarezintasunik ez dutela adierazten duen zinpeko aitortpena.
- 4.- Egitekoak ongo betetzea galerazten duen gaitasun edo gorputzeko akatsik ez dutela adierazten duen mediku-egiaztagiria. Elbarrituak diren lehiatzaileek, Foru Aldundiko Elbarrituei Laguntzeko Zentruak emandako egiaztagiria edo, hala balegokio, organo aginpidedunak emandakoa aurkeztu beharko dute, lanpostuari dagozkion egitekoak bete ditzaketela frogatzeko.
- 5.- Hautaketa-aldi bakoitzerako berariaz finkatutako bestelako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak.

Funtzionarioek ez dituzte egiaztatu behar izango aurreko izendapena eskuratu ahal izateko azaldutak obetekizuna. Horretarako, ministraritzak, udalak ahal herri-erakundeak emandako agirien bidez egiaztatu beharko dituzte erakunde horretarako funtzionari direla, bai eta bere zerbitzu orrian jasotako gorabehera guztiak ere.

Ezinbestez gertatzen denean izan ezik, proposatutako lehiatzaileek ezarritako epearen barruan agiri guztiak aurkeztu ez edo baldintza guztiak betetzen ez badituzte, ezin izango dira izendatu eta hautaketaldian egindako guztiak baliogabetu egingo zaie, eskabidean, ez direnak jartzeagatik izan dezaketen erantzunkizunaren kaltetan izan gabe. Halakorik gertatuz gero, aipatutako lehiatzaileak baztertuta, hutsik gelditzen diren lapostuak betetzeko

beste lehiatzaile bat izendatzeko proposamena egingo du Udalaren lehendakariak, hautaketa-aldia gainditu dutenen artean.

Udal-organo eginpidedunak proposamena onartuta, proposatutako izangaiek 30 asteguneko epea izango dute jabetza hartzeko, izendapena jakinarazten zaienetik hasita. Bidezko arrazoirik agertu gabe, ezarritako epean, jabetza hartzen ez dutenek lanpostuari uki egiten diotela joko da.

Oposiziozileek egindako proben maila deitutako plaza betetzeko egokia ez dela baderitzo, Epaimahaiak deialdia hutsik deklaratu dezake.

#### 10.- Lan Uzketak

Izendatutako langileak sei hilabete igaro baino lehen lana uzten bada eta lanpostua hutsik geratzen bada, probak gainditu dituzten izangaieen zerrendan hurrengo tokian dagoena izendatu ahal izango du Udalak, deialdi berri bat egin beharrik gabe.

#### 11.- Gorabeherak

Epaimahaiak aginpidea du zalantzak argitu eta, hautaketa-aldian arazorik egon ez dadin, oinarri hauetan aurrikusi denari buruzko erabakiak hartzeko.

Administrazioaren Jardunbideari buruzko Legean ezarritako kasu eta moduen arabera, deialdiaren oinarrien eta horietatik zein epaimahaiaren jardueratik sortutako administrazio egintzen aurka jo dezakete lehiatzaileek.

Oinarrietan jaso ez denari buruz erabakitzeko, honako erabaki hauek ezarriko dira: Estatuko Administrazioaren Zerbitzuko langile izateko Araudi Orokorra, abenduaren 19ko Erregeren 2223/1984 Dekretuaz onartutakoa, ekainaren 7ko Erregeren 896/1991 Dekretua; Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; apirilaren 18ko Erregeren

781/1986 Legegintza Dekretua; Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6/1989 Legea, eta ezargarri diren gainontzeko erabakiak.

Deialdia eta oinarriak osorik argitaratuko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Erregeren otsailaren 10eko 352/1986 Dekretuko 5.1 atalean eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko zazpigarren xedapen gehigarrian jasotakoarekin bat etorriz, epaimahaiak ahalmena izango du deialdi honetako saioak egiteko ezartzen diren epeak eta bitartekoak lehiatzaile elbarrituen beharrei egokitzeko, eskabidean elbarritasuna zutela adierazi badute; beti ere, saioaren edukia aldatu ez eta eskatutako gaitasun-maila gutxitzen ez bada. Elbarrituek eta gainontzeko lehiatzaileek baldintza beretan egiten dituztela saioak ziurtatu beharko da.

## 12.- Inpugnazioak

Doakienek deialdi hau eta bere Oinarriak, Udal Batza-rraren aurrean inpugnatu ahal izango dituzte, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hilabete bateko epean.

### **OPOSIZIORAKO GAI-ZERRENDA**

Lehen Zatia: Liburutegia

01.- Liburutegien Kontzeptua eta Helburua.

02.- Euskal Herriko Liburutegien antolakuntza.

03.- Herri Liburutegiak: Beren zerbitzu ezberdinak. Liburutegi Publikoak Euskal Herrian.

04.- Liburu hautaketa eta eskuraketa. Liburu-fondoaren sarrerak eta berriztapena.  
Eraberrikuntza.

05.- Katalogoak liburutegian. Katalogatze eta sailkatze sistemak.

06.- Bibliografiak: Kontzeptua eta egungo egoera munduan: ISBN, ISBD.

07.- Haurren Liburutegiak. Liburutegien hedadura. Sektorea-erakiko orientazioa  
eta heziketa iraunkorra.

08.- Haur eta gazteen liburua. Euskarazko liburua.

09.- Liburuaren historia inprimaketa asmatu zen arte.

Bigarren Zatia: Artxibategia

10.- Sailkapen Sistemak: Aipamena. Definizioa.

11.- Sailkapen Sistemak: Bakoitzak dituen abantaila eta desabantailak.

12.- Artxibaketaren antolamendua.

13.- Artxibaketa-Mailak.

Hirugarren Zatia: KULTURA, GIZARTEA.

14.- Kultura, Gizarte eta sustapena.

15.- Gizarte-kultur eragilearen kontzeptzio ezberdinak.

16.- Eragilearen zeregina Udalean.

17.- Interbentzio Sozio-kulturalerako esparruak adinen arabera: Haurrak, nerabeak, gazteak, helduak eta zaharrak.

18.- Euskal Literatura: Idazle Nagusiak.

Liburutegiko Lanpostua Betetzeko Oposizioetarako oinarriak, aho batez onartuak izan dira.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamart'erdiak direnean.